



www.begiko.com

© Testua: 2020, Lur Gallastegi
© Irudiak: 2020, Pili Aguado
© Argitalpen hau:
2020, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.
Legizamon poligonoa
Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.
48450 Etxebarri
Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-54-4
Lege-gordailua: M-24921-2020
Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2020ko azaroa

Sailaren zuzendaritza:
Joseba Santxo eta Maite Malagón
Edizioa:
Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja
Errealizazioa:
Josu Goikoetxea
Zuzenketa:
Iruak Itzulpenak
Arte-zuzendaritza:
José Crespo eta Rosa Marín
Proiektu grafikoa:
Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega,
Álvaro Recuenco eta Laura Ruiz



Liburu hau egiteko erabili diren
lehengaiak birziklagarriak dira,
eta jasagarritasunaren, ekonomia zirkularraren
eta energia-kudeaketaren alorreko Europako
arauak betetzen dituzte.

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola
erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea,
haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat
fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra
(CentroEspañol de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Gau Beltza eta ahanzturaren pasabidea

Lur Gallastegi

Irudiak: Pili Aguado

begiko

Laborategira

Amets bizi zen etxea hiriaren mendebaldeko auzo batean zegoen. Huraxe izan zuen bizileku jaio zenetik. Goizero gauza bera egiten zuen. Zortzietan esnatu, aurpegia garbitu eta gosaltu. Ondoren, motxila prestatu eta ikastolara abiatzen zen.

5

Zerbait berezia nabaritu zuen Ametsek egun hartan. Egun arrunta ematen zuen: asteartea, goizeko zortziak. Baina gosaltzen hasi orduko sentipen berezia izan zuen. Oso berezia. Kalera atera eta hodei ilun arraroak ikusi zituen zeruan. Arin zihoazen hegaka. «Arinegi doaz gauza onerako», pentsatu zuen.

Bidean aurrera egin ahala, auzoa lanbro zuri batek estaltzen zuela ohartu zen. Halako

batean, katu beltz bat pasatu zen bere aurretik korrika. Gelditu egin zen eta Ametsi begiratu zion. Ezagutzen zituen inguru hartan zebiltzan katuak eta hura ez zen haietakoa. Ibiltzen jarraitu eta aldapan gora egin zuen mutilak. Harritzekoa! Ez zuen bidean lagunik topatu! Zuhaitz bati begira geratu zen orduan. Bele

6 beltz bat zegoen haren adarrean. Une batez, txoria berari begira zegoela iruditu zitzaion. Aurrera segitu zuen.

Bidean izandako isiltasuna bukatu egin zen ikastolara iristean. Hura zen hura zalaparta! Denak urduri baino urduriago zeuden. Aldi berean ari ziren hizketan, zein baino zein ozenago. Bi egun geratzen ziren Gau Beltza ospatzeko. Biziki gogoko zuten jai hura eta erabat aztoratzen ziren aurreko egunetan.

Hildakoak omentzeko ospakizuna zen Gau Beltza. Egun motzak eta gaurik ilunenak hasi bezain pronto ospatzen zen. Denak izara zuriak jantzita mozorrotzen ziren, hildakoak balira bezala. Kalabazak barrutik hustu eta aurpegi



formako ebakiak egiten zizkieten, ondoren barruan kandela bat sartu eta beldurra emateko. Auzoko frontoian, eltze handi bat jarri ohi zuten. Nork bere beldurrak papertxo batean idatzi eta eltzera bota zitzakeen, sutan erretzeko. Kanean ibiltzen ziren denak eta giro paregabea izaten zen.

8 Gelara sartu eta berehala iritsi zen Igor irakaslea. Bakoitza bere mahaian eseri zen.

—Egun on! —esan zien—. Har itzazue koarderno eta boligrafoak eta altxa ipurdi horiek aulkietatik. Laborategira goaz!

Denen aurpegiak aldatu egin ziren hura entzundakoan.

—Laborategira! IUFALAAA!!!

Pozak hartu zituen gelako gehienak, laborategia leku zirraragarria baitzen. Bertan zer egingo zuten jakin gabe sartzen ziren beti eta handik zer aterako zen ere ezin asmatu.

—Betiko taldeetan jar zaitezte eta eseri zuen tokietan —esan zien atea ireki bezain laster—. Eta gogora ezazue: ez ukitu ezer nik esan

arte. Badakizue, ondo jakin ere, gauza arris-
kutsuak daudela.

Laborategiko atea, ikastolako gainerako
ateak baino mardulagoa zen. Haren sarraila ere,
gainerakoak baino handiagoa, eta bertako gil-
tza, bestek baino potoloagoa. Ametsek bere
taldekideak bilatu zituen. Atzera begiratu eta
han ikusi zuen Ainara; beste aldera biratu eta
hantxe zeuden Aitor eta Tommaso ere. Mahai
handi batean eseri ziren laurak.

—Zer egingo dugu gaur? —galdetu zuen
Tommasok.

—Oraindik ez du ezer esan —Ainara Igorri
begira zegoen eta koaderno irekita zuen ordu-
rako.

Laborategia ez zen beste gelen modukoa.
Sartu eta arbel zuri handi bat ikus zitekeen pa-
retetako batean. Hari begira sei mahai handi
zeuden, launa aulkirekin. Baina ikasle guzti-
guztien jakin-mina eta interesa pizten zituena
mahai haien inguruan zeuden apalak ziren.
Denetarik aurki zitekeen apal haietan: hainbat

tramankulu kitzikagarri, guraize ezin zorrotzagoak, probetak eta pipetak bezalako ontziak, baita hauts eta isurkari ezberdinez beteta zeuden hainbat poto ere. Gelako izkina batean, erdi ezkutuan, eskeleto bat zegoen.

Urteroko Biltzarra

Aulkietan eseri ziren han zeuden guztiak. 11
Emakume batek dena isilean eta ilunpetan zegoela ziurtatu zuen.

—Has gaitzke —esan zuen ahots sakon batek.

Ehun bat pertsona egongo ziren, edo berrehun agian, auskalo. Baina asko ziren. Bakoitza bere aulkian eserita zegoen; aurrez aurre, mahai handi bat zuten eta bertan lau lagun zeuden gainerakoei begira. Emakume bat zegoen erdialdean; zaharra ematen zuen, oso zaharra. Haren eskuinaldean beste andre bat zegoen, eta ezkerraldean, beste bi.

—Ongi etorriak urteroko Biltzarrera —esan zuen ozenki erdian zegoen andreak.

Nekatu itxura zuen. Aurpegia zurbil, eta begi-zuloak nabarmen zituen. Baita mahaian eserita zeuden guztiek ere. Baina hizketan hastean, sasoi betean zegoela ematen zuen:

12 —Beti bezala, urtero egiten dugun Biltzarra da hau, denok dakizuen eguna hurbiltzen ari da eta. Hementxe erabakiko ditugu zein izango diren gure arauak eta betebeharrak datorren urtean.

Denak isil-isilik zeuden hari begira.

—Orain beren buruaren aurkezpena egingo dute —esan zion bertan zegoen aitona batek ondoan zuen neskato bati. Neskatoak harriduraz begiratzen zion guztiari. Ziur zegoen zerbait garrantzitsua zela hura, adi-adi baitzeuden guztiak liburutegi hartan.

—Orain gai-zerrendarekin hasiko gara, bada —jarraitu zuen mahaiko andreak—. Geure burua aurkezten hasiko gara. Banan-banan gure karguak izendatu eta, beste proposamenik ez badago, hurrengo Biltzarrera arte berretsiko ditugu, bozka bidez.

Neskatoak besoan kolpe leun bat eman zion aitonari.

—Zer esaten ari dira? Ez dut ezer ulertzen...

Aitonak irribarretsu begiratu eta hala esan zion belarrira.

—Egon zaitez lasai, normala da lehenengo aldian. Gero, urtero gauza bera dela ohartuko zara.

Mahaian hizketan ari zen emakumeak begirada zorrotza zuzendu zion aitonari. Aitona isildu egin zen orduan.

—Ni Graxiana nauzue, Kontseilu Nagusiko lehendakaria.

—Nire eskuinaldean Maria Txipia duzue, liburutegiko arduraduna, eta nire ezkerrean, Estebania Iriarte eta Maria Baztan, sukaldeko arduraduna eta *Bestaldekoekin* ditugun harremanen arduraduna, hurrenez hurren.

Neskatoaren aurpegiak harridurazko keinua erakusten zuen, hasieran baino nabarmenago. Aitona neskatilaren belarrira xuxurlatzen hasi zen.

—Erdian dagoen emakumea Graxiana da, gure lehendakaria. Oso emakume serioa da, baina oso jakintsua. Urte asko daramatza hemen.

14 Graxianak hizketaldia eten zuen bat-batean. Zur eta lur geratu ziren denak. Zerbait gertatzen ari zen, emakume hark ez baitzuen inoiz esaldi bat bera ere erdizka uzten. Altxatu egin zen bat-batean eta eserita zeudenengana zuzendu zen. Begiradarekin jarraitu zioten denek, urduri baino urduriago. Halako batean, aulkian eserita zegoen gizon baten aurrean gelditu zen. Neskatoaren ondoan eserita zegoen aitonaren aurrean, hain zuzen ere.

—Inaxio —esan zion bere ahots sakonaz—. Oraindik ez al duzu ikasi mahaiko kideok hizketan ari garenean isilik egon beharra dagoela?

Isiltasuna zen nagusi liburutegian. Aulkietan eserita zeudenek kostata eusten zioten urduritasunari. Orduan, aitonari begiratu zioten denek.

—Barkatu, Graxiana anderea, baina neskatuari zertan ari garen azaltzen ari nintzaion.

Graxianak Inaxioren ondoko haurrari erreparatu zion.

—Zer egiten du hemen neskatila honek???
—galdetu zuen haserre antzean.

—*Gutarra* da, anderea —erantzun zion Inaxiok.

—*Gutarra*??? Zenbat urte ditu, bada???
—Graxianaren hitzek denak asaldatu zituzten.

—Hamaika urte, anderea. Hauxe da bere lehenengo Biltzarra.

Goitik behera begiratu zion neskatuari, bere begiak iltzeak balira bezala. Lepoaren ezker aldean *Gutar* guztiek zuten orbana hark ere bazuela ziurtatu zuen Graxianak. Neskatilaren begiek beldurra islatzen zuten. Burumakur, lekuz kanpo sentitzen zen jendetza haren erdian.

—Zein da zure izena? —galdetu zion.

—Nahia. Nahia Iraola —erantzun zion neskatxak.

Graxianak orduan zorroztasuna alboratu eta goxoki begiratu zion. Bere esku zimurtuekin aurpegia laztandu zion. Zainak agerian zituela ikus zitekeen eta hezurrak ere nabaritzen zitzaizkion azalaren azpian.

—Ongi etorria gure artera.

Neskatoak, hura entzunda, irribarre egin zion.

16 Emakumea mahaira abiatu eta bertan eseri zen berriz.

—Jarrai dezagun Biltzarrarekin —esan zuen denek entzuteko moduan—. Hortaz, gu lauron ardurak eta karguak bozkutzen hasiko gara. Jaso eskua nik lehendakari izaten jarraitzea nahi baduzue, eta hala ez balitz, bi besoak gorputzari ongi itsatsi.

Gehienek eskuak jaso zituzten eta gauza bera egin zuten gero, mahaian zeuden beste hiru lagunekin.

—Primeran —esan zuen orduan Graxianak—. Laurok berretsiak izan gara beste urte batez. Gai-zerrendan aurrera egingo dugu orduan.

Beste hainbat kontuz hitz egin zuten gero. Liburutegiko liburuak maileguan hartzeko arauak gogorarazi zituzten, lehenik.

—Eta urtero bezala, berriz errepikatuko dizuet behealdeko apaletan daudenak *Liburu debekatuak* direla eta aparteko baimena behar dela halakoak hartzeko, ados?

Logelen garbiketa-txandez ere hitz egin zuten, eta otorduen ordutegiaz. Nahia izeneko neskatoa galdu samar zebilen oraindik, baina Inaxiok lasai egoteko keinuak egin zizkion. Biltzarra bukatutakoan, afalorduan edo, lasaia-go azalduko zion dena.

Azkenean iritsi zen gai-zerrendako azken puntua. Huraxe zen denetan punturik korapilatsuenena, eta beldur eta eztabaida gehien pizten zituena: *Bestaldekoekin* harremanak.

—Dakizuenez —hasi zen berriz ere Graxiana—, *Gutarrok* ezin dugu *Bestaldekoekin* harremanik izan. Hala izan da beti eta hala izaten segituko du. Inork esatekorik ez badu, hementxe emango diogu bukaera aurtengo Biltzarrari.

Denek isilik jarraitu zuten. Baina halako batean, norbaitek eskua jaso zuen. Inaxio zen. Emakumeak hitza eman zion.

—Barkatu, Graxiana, zera galdetu nahi nuke; hara, aurreko urteetan, *Bestaldeko* bat aukeratzen genuen haiekin harremanak izateko, eta aurten ez duzue ezer...

18

—Bai, halaxe da, Inaxio. Urtero norbait hautatzearen kontu hori... Kontseilua horretaz hitz egiten aritu da azken asteetan eta hauxe erabaki dugu: oraingoz, *Bestaldekoekin* genuen komunikazio oro etetea eta aurten inor ez hautatzea.

Inaxioren aurpegiak harridura adierazi zuen. Nahiari begiratu zion. Gutxi ulertzen zuen hark Graxiana andereak zioenaz, baina Inaxioren gustukoa ez zen zerbait gertatzen ari zela ohartu zen.

—Baina, Graxiana anderea, nola etengo dugu haiekin harremana izateko genuen bide bakarra?

—Sentitzen dut, Inaxio. Halaxe erabaki dugu aurten eta halaxe izango da. *Bestaldekoekiko* harremanetan, ondo dakizu Kontseilu



Nagusiak eskumena duela erabakiak hartzeko, Biltzarraren oniritzirik gabe. Eta sinetsi ieza-dazu, baditugu arrazoiak hartutako erabakia hartzeko.

20 Inaxiori barrua hutsik geratu zitzaion. Mahaian zeuden lau kideek osatzen zuten Kontseilu Nagusia, eta gainerakoek, han eserita zeuden guztiek, osatzen zuten Biltzarra. Gauza gehienak denen artean erabakitzen zituzten, baina *Bestaldekoekin* zituzten harremanetan, horretan Kontseilu Nagusiak agintzen zuen.